

herrera

# Euskara bultzatzen dugu, baina ez da erraza

Itziar Aranburu Bidebietako Haur-Txokoko arduradunetako bat dugu. Urteak daramatza Juan Carlo Guerra kalean dagoen zentru honek umeentzat ekintzak antolatzen eta Itziarrek, bere lankide den Lorenekin batera, egiten dituzten hainbat gauzaren berri eman digu.

## Nolako da Haur-Txoko honen funtzionamendua?

Bidebietako Haur Txokoa hiru espaziotan banatuta dago: ludoteka, 5-14 urte bitarteko haurrentzat; tailerrak egiteko gela, urte osoko iraupena dutenak eta noizbehinkakoak antolatzen ditugu eta azkenik, liburutegia, hemen haurrek liburuak bertan erabili edo alokatu egin ditzakete.

## Zein ekintza antolatu dituzue hurrengo hilabetetarako?

Ekintza puntual berri bezala martxan jarri berria dugu marketeria tailerra. Tailer honek hilabeteko iraupena izango du eta izenemate epea otsailareu 13an amaitu da. Tailer hau 11-14 urte bitarteko gazteentzat izango da eta oso prezio onean 1.000 pezetan.

Aurrerantzean berriz,



Haur Txokoa haurrek denetarik egin dezakete, ikasi edo irakurtzeaz gain, joku eta denborapasa ugari dute bertan.

zume edo malabare tailerrak antolatuko ditugu eta jadanik martxan dauzkagun sormen tailerra, irakurlekua, liburu alokairua eta asteburuetako ibilaldiak.

## Bidebietak Kultur Etxerik ezean, nolako harrera eman dio Haur-Txokoari?

Orain arte erantzun progresibo bat izan dugu. 1988. urtean ireki zenetik, garapena poliki-poliki gorantz joan da eta gero eta gehiago erabiltzen da bai Haur-Txoko bezala eta baita beste hainbat ekintzatarako ere.

Dena den, ekintza bakoitzak publiko zehatza

eskatzen du eta horren arabera, ekintza bakoitzak harrera zehatz bat izango du.

## Zein prozesu jarraitu behar da Haur-Txokoa parte hartzeko?

Izenemate orria bete behar izaten dute haurrek, bi argazkirekin batera. Honekin, ostiralero liburutegitik liburuak etxera eramán ditzakete urte osoan zehar.

## Bidebietan kokatuta zaudetela kontutan izanik, zein presentzia du euskarak Haur-Txokoa?

Bidebietako jendearen

errealitatea ez dago euskaratik gertu, honela, nahiz eta euskararen erabilpena bultzatu askotan bakarrik geratzen gara. Dena den, azken denboraldi honetan lortu dugu talde elebidunak sortzea, eta hori oso garrantzitsua da.

## Haur-Txokoaren zein ezaugarri azpimarratuko zenuke?

Egia esan gure ezaugarria ekintzak antolatzea da, hau da, ludoteka, tailerrak eta noizbehinkako ibilaldiak.

LARRAITZ GARMENDIA (TFNOA.: 391267)

ARGAZKIA: ROXALI FERNANDEZ

intxaurrondo

# Etxekoandreak ikastaroetan murgilduta

**Montessori arte taldearen** pintura erakusketa kolektiboa daukagu Larrotxene Kultur Etxean. Lanen egileak, Tony Pajaro, Fausti Aranzabal, Iñaki Imaz, Jose Mari Luffiego, Elena Busto, Jeanne Devoyon eta Manuel Jose Garcia dira. Erakusketa, astelehenetik ostiralera egongo da zabalik 17.00etatik 20.30etara.



Gimnasiak eta saloi dantzek arrakasta handia dute.

**Hego-Intxaurronden** egiten ari diren etxe eta lanak direla eta, kontu handiz ibili beharra dago. Alboetako bideetatik etengabe irteten dira kamioiak eta askotan ezusteko galantak jasotzen dira.

agunak etxekoandre taldeak, oso positibotzat jo du aurtengo ikastaroen partaidetza. Urriari hasi ziren ikastaroetara auzoko jende ugari apuntatu da eta zenbaitetan, aurreko urteetako kopuruak handitu dituzte.

Arrakasta handiena izandakoak, gimnasia eta saloi dantzak izan dira. Adin guztietako jendea baldin badago ere, bi ekintza hauetan jende

gaztegoaren parte hartzea ikusi da. Bestalde, literaturari eskainitako txokoak ere arrakasta nabarmena izan du. Honetan, hileroko lehen ostegunean, aurrez irakurritako liburukak komentatzen dira. Margo-keta eta eskulan alorrak aldiz, ez du arrakasta handirik izan eta azkenean ez egitea erabaki zuten.

Momentu honetan, hiru hilabete iraungo duen psikologia kurtso batean

daude murgilduta etxekoandreak. Urtarrilean hasi zen ikastaro honetan, gizartean jarraitu beharreko arau edo aholkuak ematen dira.

Emakumearen eguna gertu izanik, lau egunetako egitaraua prestatzen ari dira; tartean zinema, antzerkia eta hainbat hitzal-di izango dira.

**Benantzio Sebastian** auzoko presoari omenaldia eskainiko zaio igandean 12.30etan, espetxean 10 urte bete dituela eta.

NAGORE IRASTORZA (TFNOA.: 285749)

ARGAZKIA: XIMON

**ERREKA  
JATETXEA**

LARUNBATERO

**BABARRUN JANA**

850 pezeta

Tolosako babarrunak, Aza, Odolkia, Saiheskia, Txorizua

Deba ibaia, 4 • Tfnoa.: 27 60 22